

Abertzaletasunaren bilakaera espainiar immigrazioarekiko: erreakziotik integratziora

Iker Iraola Arretxe
Parte Hartuz ikerketa-taldea, UPV/EHU

Artikulu honetan, euskal nazionalismoak Espainiatik Hego Euskal Herrira iritsitako migrazio-fluxuen aurrean garatutako diskurtso teorikoa berrikusten da, nazionalismo horren sorreratik ezkerreko abertzaletasun berria finkatu arte. Bilakaera horretan, naziotasuna zehazteko moduak nola aldatzen diren aztertzen da, ondorio nagusia izanik euskal nazionalismoak immigrantearekiko harremanean izandako aldaketa: migratzailea nazio-egitasmotik errefusatzetik haren atxikimendua bilatzera.

GAKO-HITZAK: Euskal nazionalismoa · Ezkerreko abertzaletasuna · Immigrazioa · Etorchinen integrazioa.

Basque nationalism's evolution towards Spanish immigration: from reaction to integration

This article provides an overview of the evolution of Basque nationalism's discourse on immigration to the Basque Country from Spain. It studies the period from the emergence of this nationalism to the consolidation of the new leftist Basque nationalism. It analyses the change of the concept of nation proposed by Basque nationalism. The main conclusion is that Basque nationalism changed its vision with respect to intrastate migrants: first rejecting them from the national project then encouraging their integration.

KEY WORDS: Basque nationalism · Left-wing nationalism · Immigration · Migrants' integration.

Jasotze-data: 2013-07-15. Onartze-data: 2013-10-16.

1. Sarrera: Nazionalismoa eta immigrazioa

Artikulu honetan¹ euskal nazionalismoak² Hego Euskal Herrira iritsi diren migrazio-fluxuekiko garatu dituen ildo nagusiak berrikusten dira; eta, horretarako, arreta Espainiatik iritsitako immigrazioan jartzen da. Izan ere, euskal nazionalismoak naziotasuna definitzeko moduan izandako bilakaera aztertzea da lan honen xedea. Azterketaren eremua Hego Euskal Herrira mugatzen da; eta denboratartea euskal nazionalismoaren sorreratik ezkerreko abertzaletasun berria finkatu artekoa da, XIX. mendearen amaieratik 1970eko hamarkadaren bukaera aldera³. Aldi berean, aztergaiaren zabalera kontuan hartuta, haren erpin guztiak behatu beharrean, nazionalismoaren ikuspegitik aztertu nahi dugu gaia, eta, horretarako, arreta abertzaletasunaren diskurtsoan eta ikuspegi teorikoan —nazionalismoa eta naziotasunaren definizioari loturik— jarriko dugu. Diskurtso horretan garrantzitsuak izan arren, artikulu honetatik at utziko ditugu Hego Euskal Herrian diharduen beste nazionalismoaren —hots, espainiar nazionalismoaren— ikuspegia, zein immigranteen beren iritziak.

Nazionalismoa fenomeno politikoa da, gizarte modernoaren ezaugarritzat hartzen dena (beste askoren artean, ik. Anderson, 1993; Gellner, 2008) edo, areago, gure gizarteetan eraginkorra den indar ideologiko sakona ere badena (Conversi, 2012). Nazionalismoak nazioa definitzen du, eta haren barruan, naziokideak ere zehazten ditu; hots, aldarrikatzen duen Gu-a mugatzen du. Herritartasuna eta naziotasuna parekatzen saiatu ohi da, gainera, nazio-identitatea herritar guztien artean hedatzeko asmoarekin. Estatuak bere nazio-egitasmoa eguneroko ekintza txikien bidez zabaltzen du, eraginkortasun handiarekin askotan, eta *nazionalista* gisa agertu beharrik gabe (Billig, 1995); baina Estaturik ez duen nazionalismoak, aitzitik, aldarrikapen-kutsu handiagoa erakutsi behar izaten du. Hori argi geratzen da herritartasunaren kasuan; izan ere, Estatuaren tresna formalik ezean, Estaturik gabeko nazionalismoak aldarrikatzen duen nazioko kide izatea borondate-kontua izan ohi da, Estatuaren kasuan ez bezala.

Hala ere, nazionalismoak harreman gatazkatsua izan ohi du immigrazioarekin. Izan ere, nazionalismoak bere nazioaz —eta bertan bizi diren herritarrez— egin ohi duen definizioa zalantzaz betetzen du immigrazioak; edo, beste era batera esanda, immigrazioak argi uzten du nazioaren izaera historiko eta soziala, eraikia, eta nazionalismotik egiten den naziokidearen definizioa *problematizatzen* du (Gil Araújo, 2006: 59; Triandafyllidou, 1998). Izan ere, immigrantea ez da atzerritar hutsa, nazioan bizitzen geratuko baita, eta kokapen sozial gatazkatsuan aurkitzen da (Bourdieu, 2010: 16). Immigrazioa, beraz, eremu nabarmena da edozein nazionalismo aztertzeko, nazionalismoak nazioa definitzeko duen modua agerian geratzen baita immigrazioarekiko diskurtsoan.

1. Artikulu honen lehen zirriborro bat Nazionalismoa Ikertuz I. Kongresuan (Bilbo, 2012ko irailaren 14a) aurkeztu zen, ahozko komunikazio gisa. Halaber, artikulua egilearen tesiaren atal baten garapena da.

2. Artikulu honetan, kontzeptu berberak ez diren arren, *euskal nazionalismo* eta *abertzaletasun* sinonimotzat darabilzkigu.

3. Espainia kanpotik Hego Euskal Herrira, 2000. urtetik aurrera batez ere, iritsitako *immigrazio berriarekiko* abertzaletasunak garatutako ildoan lan honetatik kanpo gelditzen da (horren azterketarako, ik. Iraola, 2013).

Nazionalismoak Gu-aren parte ez den subjektua naziotik at kokatu eta *atzerritartzat* hartzen du. Atzerritar horrekiko jarrerak abegikorrek edo erasokorrek izan daitezke, eta harekiko proposamena ere askotarikoa, kanporatsetik barneratzera joan daitekeena. Baina naziokidea ez dena atzerritar gisa ikustea ez da beti bazterkeriarekin lotu behar, eta nazionalismo orok garatzen duen mekanismoa da: Estaturik gabeko nazionalismoak aldarrikapen eta aktibismoaren bidez, eta Estatudun nazionalismoak Estatuaren tresneriaren —eta harekin doan *normaltasunaren*— bidez. Euskal nazionalismoak, horrela, Espainiatik iritsitako migrazio-fluxuak atzerriko immigrazio gisa azpimarratzeko saiakera egiten du, immigrazioaren kategoria bere nazio-ikuspegiaren arabera *nazionalizatze*ko, espainiar nazionalismoak hori ukatuko duen modu berean.

Edonola ere, nazionalismoak Gu-a definitzen duenean Bestea ere zehaztu behar du, eta askotan prozesu hori modu estereotipatuan egiten da (Connor, 1998: 41 eta hur.). *Bestetasuna* funtsezkoa da, hortaz, nazionalismoan, talde nazionala *beste* taldeekiko mugatu behar baita, ezinbestean. Anna Triandafyllidouren (2001) planteamenduari jarraituz, nazioak *Beste Esanguratsu* batekiko —edo batzuekiko— definitzen dira; hau da, naziotasunaren zedarritzean eragina duen beste taldea, dela inspirazio moduan edo dela mehatxu moduan. Talde horiek nazio-lurraldearen barruan edo gertu egon ohi dira, normalean; eta nazioa zer ez den adierazten dute. *Beste Esanguratsu* gisa funtzionatzen duen taldea aldarrikatzen den nazioaren antzekoa izaten da maiz; eta, taldeen arteko desberdintzea zaila denean, mehatxu gisa ikusi ohi da (Triandafyllidou, 2001: 33 eta hur.). Ikuspegi hori Hego Euskal Herrira ekarrita, euskal nazionalismoarentzat *Beste Esanguratsuen* papera Espainiak —eta espainiar immigrazioak— bete duela ondorioztatuko genuke⁴.

Nolanahi ere, euskal nazionalismoak Espainiatik iritsitako immigrazioaren aurrean garatutako ildo gatazka-iturri izan da, maila politikoan batez ere (Zabalo *et al.*, 2013). Nazionalismoaren ikuspegi teorikotik, eztabaida izan da ea euskal nazionalismoak autoktonoen eta espainiar jatorriko immigranteen arteko zuloa areagotu duen (Heiberg, 1989) edo, aitzitik, abertzaletasunak banaketa hori gainditzen lagundu ote duen (Conversi, 1997).

Nazionalismoarekin batera, lan honetan *immigranteen integrazioa* ere hizpide dugu. Migrazioen azterketen ikuspegitik, *integrazioa* gaur egun kontzeptu oso eztabaidatua da; izan ere, 1970eko hamarkadatik aurrera, eremu anglosaxoian batez ere, multikulturalismoaren teoriak nagusitasuna lortu zuten, eta immigranteek harrera-gizarteetan euren kulturaren nolabaiteko *onarpena* behar zutela azpimarratu zen, euren kulturaren erreproduktzioerako eskubidearekin batera (adibidez, ik. López Sala, 2005: 77 eta hur.). Aztergai dugun testuinguruan, aitzitik, eztabaida horiek ez ziren oraindik garatu, eta *integrazioa* bertako-etorkin harremanean aurrerapauso gisa ulertu behar da. Gainera, aztergai nazionalismo bat dugunez, immigrazioa auzi politikotzat ikusi izan da, bere adiera kulturala ikuspegi politikoari lotuz, gehienetan.

4. Egile horrek barneko eta kanpoko *Beste Esanguratsuak* bereizten ditu; hots, naziotzat hartutako lurralde barneko zein kanpoko taldeak. Horrekin batera, Estatuaren barruko beste mugimendu nazionalista batzuek ere funtzio hori bete dezakete, inspirazio gisa (Triandafyllidou, 2001: 34).

Abertzaletasunaren eta immigrazioaren arteko lotura nabarmena da. Euskal nazionalismoaren sorrera, Sabin Aranaren eskutik, Bizkaiko industria berrietara iritsitako migrazio-fluxu handiarekin batera gertatu zen. Era berean, abertzaletasun berriaren sorrera, ETArri lotuta, eta 1950etik 1980ra arte Hego Euskal Herrira iritsitako *migrazio-uholdea* denboran batera jazo ziren (bi immigrazio-aldi horietarako, besteak beste, ik. Linz, 1986: 485-519; Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994; Conversi, 1997: 187-221). Bi immigrazio-prozesu horien eragina sakona izan zen Hego Euskal Herriko gizarte-egituran. 1986an, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 30,6 lurraldetik at jaioa zen (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 125). Ondorio ekonomiko, demografiko, kultural zein politikoak garrantzitsuak izan ziren; eta, gaur egun, Hego Euskal Herriko biztanleriaren % 20 inguru Espainian jaiotakoa da (Aierdi, 2011).

Jarraian, bada, euskal nazionalismoak Espainiatik Hego Euskal Herrira iritsitako immigrazioarekiko garatutako ildo teorikoaren berrikuspena egingo dugu. Horretarako, hiru aldi bereiziko ditugu: hasierako euskal nazionalismoa, non etorkinen integrazioa ezinezkoa baitzen; hasierako nazionalismoaren baitan aldaketak gertatzen hasten diren bigarren aldi bat; eta abertzaletasun berria, naziotasunaren ikuspegi berri batekin. Amaieran, ondorio nagusiak laburbiltzen dira.

1. Hasierako euskal nazionalismoa: ezinezko integrazioa

Aurrekariak izan baziren ere (Manuel Larramendi, Agosti Xaho...), euskal nazionalismoa Sabin Arana Goiriren eskutik egituratu zen. Abandoarrak euskal nazionalismoaren oinarriak finkatu zituen, eta haren egitasmoan espainiar immigrazioarekiko ikuspegiak esangura berezia eskuratu zuen. Izan ere, garai hartan migrazio-fluxu handiak iritsi baitziren, industria berrietan lan egiteko, Bizkaira⁵. Aranak, bizitza politiko laburrean (1983ko Larrazabalgo diskurtsoetik 1903an zendu zen arte), hainbat proiektu garatu zituen, kontraesanekin, askotan. Edonola ere, euskal nazioaren ezaugarriekiko planteamendua bere horretan mantendu zuen (ik., adibide moduan, Larronde, 1977; Azurmendi, 1979; Corcuera, 2001).

Sabin Aranaren nazionalismoak ezaugarri objektiboen gainean eraiki zuen euskal nazioa; eta nazioa ondoko osagaiok —eta hurrenkera horretan— osatzen zutela defendatu zuen: arraza, hizkuntza, gobernu eta legeak, ohitura eta usadioak, eta pertsonalitate historikoak. Elementu horien artean, bada, arrazak garrantzi berezia eskuratu zuen eta, horrekin batera, egitasmo guztian zehar erlijio-ikusketara zurrunda gailendu zen.

5. Ordura arte migrazio-saldo negatiboak izan zituen Hego Euskal Herriak. XIX. mendeko azken laurdenean, baina, egoera hori aldatu egin zen Bizkaian, ez, ordea, Araba, Gipuzkoa edo Nafarroan. Gainontzeko euskal probintzietatik Bizkaira (baita azken horren barruan ere) garatutako barne-migrazioaz gain, etorkin ugari iritsi zen Espainiatik Ezkerralde, Meatzalde eta, oro har, Bilboaldera. Bizkaiko hiriburuan, adibidez, 1857an 17.649 biztanle izatetik, 1900ean 83.306 izatera pasa ziren (Garmendia *et al.*, 1982: 49). Hazkundera are handiagoa izan zen Ezkerraldean: XIX. mendeko azken laurdenean, eskualde horretako biztanleak 25.000 bat izatetik 230.000 ingurura pasa ziren (Fusi, 1984: 43). Etorkin gehien jatorria Euskal Herri ondoko lurraldeak izan ziren, Burgos, Errioxa eta Kantabria, batez ere.

Aranaren *arrazakeria*, hortaz, maiz azpimarratu izan da, baina arrazismo horren ezaugarriak azaltzea beharrezkoa da. Izan ere, Aranaren nazionalismoa ez zen oinarritu garai hartan nagusi zen arrazakeria biologikoan, *arrazaren* ulerkuntza berezi batean baizik. Aranaren *euskal arraza*, balizko arraza horren ezaugarriak zehatz-mehatz zedarritu gabe (Azurmendi, 1979: 128), deiturek zehaztu zuten, ezaugarri biologiko edo fisikoak azpimarratu gabe (Conversi, 1997: 68). Bere garaiko egile arrazista ugarietatik aldendu zen, beraz; eta euskal tradizioarekin ere hautsi zuen, ordura arte euskara komunitatea definitzeko oinarritzko osagaia zela dirudi-eta, *euskaldun* zein *euskal herria* terminoek berek adierazi bezala (Jáuregui, 1981: 16; Zabaltza, 2006: 163).

Kontuan hartu beharrezkoa da, beraz, XIX. mendeko Mendebaldeko pentsamenduan zein zientzian, arrazismoa oso hedaturik zegoela, eta *euskal arraza* kontzeptua ez zela Euskal Herrian asmatu, Europako zientzia-munduan baizik (Douglass, 2004: 102). Aranak, bere mugimendu nazionalista sortzeko, European nagusi ziren teoria arrazistak erabili zituen, teoria horiek funtzionalak baitziren haren helburuetarako. Izan ere, Aranaren berezitasuna, garaiko egileen artean, ez da *arraz*a argudio politiko gisa erabiltzea (hori ohikoa baitzen laponiar, finlandiar, zelta, eslaviar eta bestelako gutxiengoan aurka egiteko), baizik eta arraza-nagusitasuna periferiako herri bati egozte, Estatuaren jabe den herri baten aurka egiteko (*Ibidem*, 106 eta hur.).

Edonola ere, Sabin Aranaren aburuz, euskal nazioko kideak *euskotarrak* ziren, hots, *euskal arrazako* kideak, eta Euskal Herrian bizi ziren gainontzeko herritarrek nazio horretatik at utzi zituen. Euskal arrazaren ideia, hortaz, espainiarrekiko desberdintzeko eta euskal nazioko kideen isolamendu nahia adierazteko erabili zen estrategia politikoa izan zen. Horrela, ordura arte bere buruaz begiramen eskasa zuen talde baten aldarrikapena egin zuen (Conversi, 1997: 61). Izan ere, nazioa zedarritzeko garaian, nazionalismoak hainbat osagai erabil ditzake (arraz, etnia, hizkuntza, erlijioa, historia, borondate politikoa...) testuinguruaren arabera; eta Aranaren euskal nazionalismoaren kasuan, abizenetan oin hartutako bereizketa⁶ (*abizenkeria* ere deitu izan dena) funtzionala gertatu zen bertakoak eta kanpotarrak banatzeko, bestelako ezaugarriak ez bezala (euskarak, esaterako, kanpoan utziko lituzke lurraldean jaiotako herritar ugari), eta espainiar immigrazioaren lehen urteetan batez ere (Beltza, 1974: 87).

Hala ere, Arana ez zen *euskal arraza* aldarrikatzera mugatu, eta espainiarren⁷ eta, batez ere, Hego Euskal Herrira Espainiatik iritsitako langile etorkinen aurka

6. Deiturek erakusten dute horiek jartzerakoan nagusi zen hizkuntza, ez besterik. Puntu horretan, berezia da Arana, garaiko arrazistek bestelako *frogak* bilatzen baitzituzten. Baina buruzagi nazionalistaren planteamenduetan, funtsezkoak ziren. Adibidez, 1894ko uztailen inauguratutako *Euzkeldun Batzokija* elkarteko kide egiteko estatutuek «Jatorrizko bazkide», «adoptatutako bazkide» eta «adikto» arteko bereizketa egiten zuten, bazkideen euskal abizen kopuruaren arabera (Larronde, 1977: 187).

7. Aranak Espainiaren aurka egiten zuen, oro har, eta herrialdeari *Maketania* deitzen zion. Gainontzeko atzerritarrekin, aldiz, jarrera desberdina zerabilen. Adibidez, etorkizuneko Bizkaia independentearentzat mota honetako legeak aurreikusten zituen: atzerritarrek euren kontsulekin harremana edukita Bizkaian bizitzeko aukera izango zuten bitartean, espainiarrak ezingo ziren independentzia osteko lehen urteetan Bizkaira sartu ("La pureza de la raza", *Bizkaitarra*, 24, 1895-03-31, in Arana, 1980: 546).

egin zuen, maiz hizkera bortitzarekin egin ere⁸. *Maketo* deitzen zien, eta mota guztietako ezaugarri negatiboak ezarriz —nagia, zikina, motela, besteen lepotik bizi dena... (Azurmendi, 1979: 114)— gutxien zituen. Finean, etsai gisa aurkezten zituen:

«el maketo: ¡he ahí el enemigo!»

Y no me refiero a una clase determinada de *maketos*, sino a todas en general: todos los *maketos*, aristócratas y plebeyos, burgueses y proletarios, sabios e ignorantes, buenos y malos, todos son enemigos de nuestra Patria, más o menos francos, pero siempre encarnizados.

Y entiéndase que no los aborrecemos porque sí. Si el español se estuviese quedado en su tierra, no tendríamos por qué quererle mal.

Pero es nuestro dominador y nuestro parásito nacional: nos ha sometido y privándonos de la condición a que todo hombre y todo pueblo tiene derecho, la libertad; y nos está carcomiendo el cuerpo y aniquilando el espíritu, y aspira a nuestra muerte. ¿Cómo hemos de quererle bien?

(“Nuestros moros”, *Bizkaitarra*, 4. zk., 1893ko abenduaren 17a, in Arana, 1980: 196).

Conversik (1997: 198) azaltzen duenez, espainiar immigranteen aurkako jarrera —eta *maketo* hitzaren erabilera— ez zen euskal nazionalisten kontua soilik. Nolanahi ere, *arrazza*, modu berezian ulertutako arraza izan arren, naziotasuna zehazteko osagai gorena zen Aranarentzat, eta gainontzeko elementuak bigarren mailan geratzen ziren. Euskara, zentzu horretan, *euskotarren* izaera bereziaren agerpena zen, eta euskal jendea «garbi» matentzeko (hots, kanpotarrekin harremanik ez izateko) tresna gisa zen nabarmena berarentzat. Horregatik, Euskal Herrira iritsitakoek euskara ikastea gaitzetsi zuen (Arana, 1980: 404). Finean, Aranaren arrazismoaren funtsa espainiarrekiko desberdintzea bilatzea zen, eta horiekiko planteatzen zituen bere erasoak, ez atzeritar guztiekiko. Horregatik, Conversik (1997: 198) aburuz, Aranarena «egoerari lotutako arrazismoa» [*situational racism*] litzateke⁹.

Sabin Aranaren hasierako euskal nazionalismoak, bada, *Euzkadi* nazio gisa aldarrikatzea zuen helburu, ideia hori gutxiengo oso txiki batek sustengatzen zuen momentu batean. Proposamen hori gizartearen aldaketa-prozesu sakon baten baitan jazo zen: egitura tradizionalen galera, klase sozialetan aldaketak (langile klase berri eta ugari baten sorrerarekin), mugimendu politiko zaharren krisia eta berrien agerpena, aldaketa demografikoa, eta abar. Aldaketa-testuinguru horretan, Aranek Euskal Herriko gizartean zeuden sentimendu batzuk (foruen galeragatiko

8. Irain ugari eta gogorak jaulki zituen Aranek espainiar jatorrikoen aurka; adibidez: «Gran número de ellos [*maketoak*] parece testimonio irrecusable de la teoría de Darwin, pues más que hombres semejan simios poco menos bestias que el gorila; no buesquéis en sus rostros la expresión de la inteligencia humana ni de virtud alguna; su mirada sólo revela idiotismo y brutalidad» (“Corrupción”, *Bizkaitarra*, 27. zk., 1895eko maiatzak 31, in Arana, 1980: 593).

9. Horri loturik, arrazismoarekin kontraesanean, Arana Espainiaren aurka borrokatzen zuten hainbat herriren alde agertu zela azpimarratzen da (Conversi, 1997: 198, 17. oin-oharra; Douglass, 2004: 106; Zabaltza, 2005: 281); adibidez, kubatarren, Amerikako indigenen edota Marokoko berbereen alde.

ezeingona, adibidez) ulertzeko gakoak eskaini zituen¹⁰; hau da, narrazio historiko batean kokatu zituen, zentzua emanez, eta proiektu politiko bat eskaini zuen: euskal lurraldeen independentzia.

Aldi berean, hala ere, Sabin Aranaren nazionalismoak proiektu politiko nazionalistaren eta etorkinen artean zulo sakona sortu zuen. Bere diskurtsoaren hartzaile bakarrak ziren *euskotartzat* hartzen zituenak, eta haien nazio-kontzientzia piztea zuen helburu. Bide horretan, espainiarren aurkako jarrera diskurtsibo gogorra garatu zuen, eta etorkinen (eta beste hainbaten) aurka egin zuen. Immigrante gehienek, beren aldetik, garai bertsuan Bizkaian ere sortutako espainiar sozialismoarekin bat egin zuten (Fusi, 1979; Solozábal, 1979). Aranaren jarrera hori nazionalismoak —mugimendu politikoa den heinean— bilatu ohi duen hedapenaren aurkakoa zen, eta mugimendua haztearekin batera, beste ikuspegi batzuk sortzen joan ziren. Edonola ere, 1930eko hamarkada arte, arraza euskal naziotasunaren esentzia gisa aldarrikatzen jarraitu zen (Zabalo, 1998). Sabin Arana hilik, euskal nazionalismoaren beste hainbat egilek (Luis Arana, Aingeru Zabala, Engartzi Aranzadi *Kizkitza* eta abar) naziotasuna eta arraza lotzen jarraitu zuten. Aita Ibero, adibidez, *Ami Vasco* izeneko idatzian, arrazan oinarritutako naziotasunaren azalpen sistematikoa egiten saiatu zen, nahiz eta errealitatean hizkuntza eta arraza erabat nahastea lortu zuen, Krutwigek *Vasconian* salatzen zuen bezala (Sarrailh de Ihartza, 2006: 303-304). Nolanahi ere, arrazak elementu sinboliko garrantzitsua izaten jarraitu arren, euskal nazionalismoa handituz joan ahala, naziotasunaren osagai gisa ahultzen joan zen, praktika politikoan (Jáuregui, 1981: 17). Izan ere, euskal nazionalismoaren hastapenetan bertan, helburu politikoak erdiesteko mugimendua zabaldu beharra ikusi zuten batzuek, eta horrek immigranteekiko beste jarrera hartzea eskatzen zuen, ezinbestean.

2. Hasierako euskal nazionalismoa: integraziorako urratsak

Sabin Aranaren ikuspegiaren oinordeko zen hasierako euskal nazionalismoan, migratzaileen integraziorako lehen urratsak hastapenetatik ematen hasi ziren, teorian zein praktikan, nahiz eta hasieran planteamendu isolatuak izan ziren. Maila teorikoan, adibidez, 1901ean, Arturo Kanpion euskal naziotasuna arrazan soilik eta era hertsiki batean oinarritzearen aurka agertu zen, zeren eta «Si la pureza de raza se hubiera de atender, no existiría en Europa pueblo con derecho a construir nación» (in Corcuera, 2001: 429). Kanpionentzat arraza euskal naziotasunaren ezaugarrietako bat zen, baina ez funtsezkoena, haren ustez euskal nazioaren ezaugarri behinena hizkuntza baitzen (Huici, 1981; Jáuregui, 1981: 159). Areago, Apalategik (1985: 54) Kanpionen kasuan ezin dela arrazakeriaz hitz egin azpimarratzen du, nafarrak ez baitzion arrazari funtzio politikorik aitortzen.

Maila praktikokoan ere arraza eskakizunak gutxitzen joan ziren, gutxinaka. Corcuerearen (2001: 430) aburuz, behin EAJk hauteskundeetan garrantzia eskuratuta, praktikan arrazaren arabera isolamendua leuntzen joan zen; eta, esaterako, alderdiko kide bilakatzeko deitura euskaldunen ezinbestekotasuna

10. Kontakizun horren egiazkotasuna bigarren mailakoa da hemen. Izan ere, mobilizazio politikorako garrantzitsuagoa da ideia baten arrakasta soziala (jende kopuru nahikoak errealizat hartzea) bere balizko zuzentasun historikoa baino.

1899tik jada ez zen betetzen. Propaganda mailan ere naziotasunaren ezaugarri berriak azpimarratzen hasi ziren, arraza alboratu gabe: aberriarekiko maitasuna, euskara, Euskal Herriarekiko *lotura* zehaztugabea, eta abar (*Ibidem*). Fusiren (1984: 197) arabera, 1908rako jada nabaria zen euskal nazionalismoa, praktikan, hasierako xenofobiatik urruntzen ari zela.

Euskal nazionalismoaren ildo nagusia Sabin Aranaren jarraitzaileek osatzen zuten. Tradizio horretatik at, hala ere, abertzaletasun berri bat sortzeko saiakerak izan ziren, arrakastarik lortu ez zuten arren. Horretan lehenengoetarikoa Francisco Ulazia izan zen, Bilbon zinegotzi jeltzalea izatetik, ikuspegi liberal ezkertiarra igaro zena, eta Eusko Abertzale Ekintzaren abertzaletasun ezkertiarren aurrekaritzat hartzen dena (De la Granja, 2008: XXIX-XXX). Etorkinekiko jarrerari dagokionez, Ulaziak ordezkatzeko ildo txikiak naziotasunaren definizio berri baterantz jo zuen, eta borondatean oin hartutako nazionalismora gerturatu zen (Mees, 1989: 262). Hala eta guztiz ere, ikuskera hori antolatzeko saioek (1910eko Partido Nacionalista Vasco Liberal eta 1911ko Partido Nacionalista Republicano Vasco) huts egin zuten, eta haren planteamenduak euskal nazionalismoaren gizarte-oinarrian zabaldu gabe geratu ziren; izan ere, abertzaleen artean, etorkinen aurkako jarrerak indartsu zirauten.

Denboran aurrera eginez, 1930ean, abertzaletasun berri bat, Aranaren ikuspegitik bereizita, sortzeko beste saio bat izan zen, Eusko Abertzale Ekintzarekin (EAE). Ulaziaren saioak baino arrakasta handiagoa izan arren, EAEk ez zuen EAJren hegemonia garaitu. Hala ere, EAEk abertzaletasun liberal eta ezkertiarra proposatu zuen, eta naziotasuna modu berrian zehaztu zuen; izan ere, Aranaren *arrazismoaren* aurka agertu zen, modu argian (Díez Medrano, 1999: 104). Garai hartan ohikoa zen bezala, EAERentzat arraza naziotasuna zedarrizteko osagaietako bat zen, ez garrantzitsuena, ordea. Osagai teoriko gisa onartzeak, hala ere, ez zekarren arraza naziotasunerako eskakizun gisa planteatzea. *Ekintzaleen* agerkarian horrela azaltzen zen ideia hori:

Para el Partido nacionalista, ha existido el concepto de la raza. Una casta noble, decían, la nuestra. Y todas las demás degeneradas.

Para nosotros es evidente que el derecho de la nacionalidad se basa en la existencia de una raza, de un idioma y de unas características; pero es igualmente innegable que quien llega a nuestra tierra no a esclavizarla, no a aniquilarla, sino a trabajar en ella, ése es tan vasco como nosotros (Juan de Zuazo, "Antecedentes del nacionalismo", *Tierra Vasca*, 1933-06-25, in Elorza, 1978: 418).

Eusko Abertzale Ekintzak, nazionalismo aurrerakoia proposatuz, alderdi ezkertiarrekin lankidetzara ere bultzatu zuen, horiek Espainiako nazio-egitasmoarekin bat egin arren. Erakunde horietan biltzen ziren immigrante gehienak, eta, beraz, jarrera hori esanguratsua izan zitekeen etorkinekiko harremanean. 1936an EAEk Fronte Popularrean parte hartu zuen alderdi abertzale bakarra izan zen, baina gerrak eta ondorengo diktadurak alderdi berri eta txikiaren garapena mugatu zuten.

Baina Sabin Aranaren ildoko euskal nazionalismoan ere aldaketak jazo ziren immigrazioa ulertzeko moduan. 1930eko hamarkadatik aurrera, aurreko

hamarkadan sortutako EAJ-Aberri¹¹ zein ondorengo Jagi-Jagiko¹² kide batzuen artean (Eli Gallastegi *Gudari* eta, batez ere, Manu Sota), immigrazioarekiko ikuspegi berriek lekua hartu zuten, mugimendu nazionalistan gailendu ez ziren arren. Ildo horrek, EAE-ANV eta aurreko saiakera txikiek ez bezala, Aranaren mezua sutsuki aldarrikatzen zuen, baina berritasun adierazgarriak mahaigaineratu zituen etorkinekiko jarrerari dagokionez. Abertzale ezagun batzuen iritzi bakanak izan arren, euskal nazionalismoan aurrerago gertatuko zen aldaketan urratsak dira, neurri batean.

1931ko gertaera bati lotuta, iritzi horiek azaleratu ziren: Espainian jaiotako langile bat, Acero y Juncosa izenekoa, abertzalea, tiroz hil zuten. Jazoera hark eragin handia izan zuen Jagi-Jagiren kide esanguratsu batzuen artean. Izan ere, *Jagi-Jagi* aldizkarian ohikoak ziren etorkinen aurkako iritziak zein *arrazaren* aipamenak; eta, aurkako testuinguru horretan, kanpoan jaiotako langile hori «Euskal Aberriaren alde» hil zela adierazi zuen Gallastegik (1993: 110). Baina iritzi horiek Manu Sotak mahaigaineratu zituen, batez ere. Horrek Acero y Juncosaren aldeko omenaldi batera deitu zituen jarraitzaileak, tartean «[los] *arrotzak* al servicio de Euzkadi» (*Jagi-Jagi*, 22, 1933, in Gallastegi, 1993: 113).

Edonola ere, Jagi-Jagiko kide horien artean ere arrazak leku esanguratsua betetzen zuen naziotasuna definitzerakoan. «Arrazen arteko nahasketa», adibidez, ekidinezintzat hartzen zuten (Gallastegi, 1993: 109). Ezin da inolaz ere pentsatu arlo horretan Aranaren ikuspegia gailentzen zutenik; baina,aldi berean, berritasun argiak ere planteatu zituzten. Esaterako, jatorriagatik mespretxua gaitzetsi zuten edota *maketo* hitza geroz eta gutxiago erabiltzen zela-eta poza agertu zuten (*Ibidem*, 110). Ildo horretan koka daitezke Sotaren hitz hauek:

(...) entre el *maketo* vasquizado y el vasco *maketizado*, ¿cuál hemos de escoger con más predilección? La contestación, a mi juicio, no tiene duda. El primero, (...) muchos Pérez y Fernández, están dando lecciones de nacionalismo y de sacrificarse por Euzkadi (*Jagi-Jagi*, 22, 1933, in Gallastegi, 1993: 112).

Nolanahi ere, Aranaren ideiei jarraitzen zien euskal nazionalismoaren baitan, naziotasuna modu berezian ulertutako *arrazan* oinarritzen jarraitu zen. Baina Jagi-Jagiko kide esanguratsu horien jarrerak, zein Eusko Abertzale Ekintzak saiaturiko bide berriak, abertzaletasunak naziotasuna modu berri batean definitzeko beharra zuela erakusten digute. Euskal nazionalismoak, behin talde txikia izateari utzita, gizartean gailentzeko beharra zuen, mugimendu politikoa zen heinean. Bide horretan, naziotasunaren ordura arteko definizioa oztopo gaindiezina zen. Espainiar etorkinen integrazioaren aldeko lehen diskurtsoak gertatu ziren horrela, baina

11. EAJ 1916an Comución Nacionalista Vasca bilakatu zen, eta politika erlijiozale eta eskuindarra gailendu eta independentismoa alboratu zuen. 1921ean *Aberri* aldizkariako sektore independentistek (tartean Eli Gallastegi *Gudari*), *Comuciónen* jarrerari aurre eginez, EAJ berria (PNV-Aberri izenez ezaguna) sortu zuten. 1930ean, euskal nazionalismoaren bi adarrek bat egin zuten, PNV izenarekin, berriz ere. 1934an Jagi-Jagi EAJtik atera zen, baina haren garapena 1936ko Gerrak eten zuen (ik. Beltza, 1974; De Pablo *et al.*, 1999; De la Granja, 1995).

12. *Jagi-Jagi* Bizkaiko Mendigoizale Batzaren astekaria zen eta Eli Gallastegi *Gudari* zen haren ordezkariarik ezagunena. 1934an EAJtik aldendu zen, eta jarrera independentista argia izan zuen. 1921ean sortutako EAJren (edo PNV-Aberri) jarraitzailetzat hartzen da (Gallastegi, 1993; De la Granja, 1995: 44).

1936ko gerrak eta diktadurak bilakaera posible hori moztu zuten; eta erabateko aldaketa aurrerago jazo zen¹³.

3. Euskal nazionalismo berria: integrazioaren bila

1950eko hamarkadatik aurrera, behin 1936ko gerra atzean utzita eta frankismoak euskal nazionalismoan eragindako antolaketa- zein belaunaldi-hausturaren testuinguruan, abertzaleen artean kanpotarrekiko, migratzaileekiko eta, finean, euskal nazioaren ezaugarriekiko berekiko ikuspuntuak aldatzen joan ziren. Gainera, 1950eko hamarkadatik aurrera, langile asko iritsi ziren Espainiako lurralde pobretuetatik Hego Euskal Herrira; eta euskal nazionalismoaren sorreragaraietako fluxua txiki gelditu zen. Oraingoan, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan batez ere, immigrazioa askoz handiagoa izan zen, eta ez zen Bizkaiko eskualde batzuetara mugatu¹⁴. *Migrazio-uholde* hori, halaber, testuinguru politiko zehatz batean gertatu zen: frankismoak modu gordinenean ekiten zuen euskal identitatearen eta haren ikurren aurka, eta abertzaletasuna, oposizio politiko guztia bezala, gogorki jazarria zen.

Immigrazio-prozesu horren esangura adierazteko, hona datu bat: 1973an Hego Euskal Herriko biztanleriaren % 53 zen bertan jaiotakoa eta guraso biak ere bertakoak zituena (Jáuregui, 1981: 69). Egoera horretan, agian ez zen harrizkoa abertzale askoren artean nolabaiteko sentimendu *agonikoa* zabaltzea; izan ere, beren nazioa galzorian ikusten zuten, eta ez zirudien etorkizun oparoa izango zuenik. Beren kultura eta izaera arriskuan dakusaten gutxiengoaren erreakzio hedatua da desberdintasunezko zeinuak indartzea, eta autoktonoek immigranteekiko isolamendu boluntarioa bultzatzea (Conversi, 1997: 201). Bertakoen artean, eta abertzaleen artean indar biziagoz, sentimendu hori espainiar jatorriko iritsi berrien aurkako jarrerarekin lotu zen, eta euskara eta euskal kulturaren galera immigrazioaren hazkundearekin lotzen zuen usteak indarra hartu zuen (Jáuregui, 1981: 70).

Testuinguru hartan, ordura arte nagusi zen euskal nazionalismoaren agerpidea, EAJ, krisian zegoen; buruzagitza erbestean zuela, Hego Euskal Herrian haren jarduna oso mugatua zen. 1959an abertzaletasunari haize berriak ekarri zizkion eragilea jaio zen, Euskadi Ta Askatasuna, 1952an ikasle talde batek sortutako Ekin taldearen jarraitzaile. Belaunaldi-haustura gertatu zen abertzaletasunaren baitan, beraz, eta euskal nazionalismo berri bat agertu zen. Ezkerreko abertzaletasun hori, hasieran izaera akonfesionala izan zuen, baina laster sozialismoarekin eta, ondoren, marxismoarekin lerrokatu zen.

13. Lan honetan euskal nazionalismoaren ikuspegi teorikoa behatzen ari gara, batik bat. Hala ere, azpimarratzekoa da abertzaleek 1936an lehen Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritza eskuratzean ez zutela espainiar jatorriko euskal herritarren aurkako praktikarik burutu.

14. 1900 eta 1950 artean Hego Euskal Herriak biztanleak irabazi bazituen ere, benetako immigrazio-prozesu sakona 1950 eta 1980 urteen artean gertatu zen. Frankismoak bultzatutako *desarrollismoari* lotuta, Espainiako nekazari-lurretatik exodoa gertatu zen, eta hiriek eta Hego Euskal Herria bezalako guneez industrializatuek etorkin ugari jaso zituzten. 1950etik 1970era Hego Euskal Herriko herritarrak 1.422.000 izatetik 2.334.000 izatera igaro ziren (De Miguel, 1974: 251). Nolanahi ere, immigrazioa apalagoa izan zen Nafarroan (García-Sanz eta Mikelarena, 2000: 127-128). Horrekin batera, aurreko jatorriek (Euskal Herri ondoko probintziak) urrunagokoak batu zitzaizkien immigrazioaldi honetan, eta Gaztela eta Leon, Extremadura, Galizia eta Andaluziako etorkinak iritsi ziren (Ruiz Olabuénaga eta Blanco, 1994: 125).

ETAk bere lehen urteetan euskal nazioaren ezaugarrien artean *arraza* aipatzen zuen arren¹⁵, segituan ezaugarri horien azterketan arraza alde batera utzi eta *etnia* ipini zuen erdigunean. Hau da, elementu biologikoa (arraza) alboratu eta Euskal Herriaren ezaugarri linguistiko-kulturalei (etnia) erreparatu zien. Euskarak, horrela, pisu handia eskuratu zuen (Jáuregui, 1981: 133-135). Naziotasunaren definizioan hizkuntzak hartutako garrantzia, halaber, Bigarren Mundu Gerra ostean Europa Mendebaldeko nazionalismo azpiestatalen ildoan kokatu behar da (Rubiralta, 2000: 110). ETAren I. batzarraren berri ematen duen agirian (1962ko maiatzean sinatua), horrela zioen erakundeak berak haren printzipio edo oinarri ideologikoak azaltzen zituenean:

[ETAk] Arrazakeria gaitzesten du; ortaz, ez du ontzat ematen erri baten edo besteren jatorrizko gaillentasunik. Kanpotarren erbesteratzerik edo bakartzerik ez du, beraz, on artuko, kanpotarrak Euzkadi'ren interesen eta eskubideen aurka jotzen ez duten artean (in Hordago, 1979: 1. lib., 526).

Hala ere, ETAk bere hasierako urteetan, 1959tik 1962rako epean, immigrazioaren azterketa *makroa* lehenetsi zuen, zeinean fenomenoaren irakurketa ezkorra gailentzen baitzen. Garaiotako lehen ikuspegi hori nahiko azkar gainditu zen, eta immigrazioaren ikuspegi *irekiagoa* gailendu zen ondoren. Dena dela, garrantzitsua da ETAren hasierako ikuskera horiek azaltzea, jarrera horiexek euskal nazionalismoak nazioa ulertzeko zuen moduaren berritzea zekarten heinean.

1960ko *Liburu Zurian*¹⁶, «Personalidad nacional y patriotismo» izeneko atalean, beste gai batzuekin batera (erlijioa, arazo soziala, artea...), immigrazioaren afera aztertu zuen ETAk (in Hordago, 1979: 1. lib., 267-271)¹⁷. Bertan, espainiar immigrazioa arduratzen handiz aztertu eta haren arriskuak azpimarratzen ziren. Finean, ETArentzat mundu-mailan immigratzearen ekintza eskubidea bazen ere, Euskal Herriko testuinguruan *genozidiorako* bitartekoa ere bazen. Euskal Herria Espainiak —eta Frantziak— zapalduzko herria izaki, immigrazioa Euskal Herria asimilatzeke Espainiaren amarru gisa ikusten zen. Immigrazioa, hortaz, Espainiaren esku zegoen tresna politiko gisa ulertzen zen:

Como patriotas no tenemos nada que objetar a la entrada en Euzkadi de un inmigrante concreto y aislado. (...) es indiscutible que la persona humana tiene el derecho de ganarse la vida donde le plazca.

Pero no es ese el problema nuestro de la inmigración. En realidad la inmigración es MASIVA, y dada la situación política del país, es GENOCIDA. En una situación normal, con instituciones políticas propias y vida nacional natural, el problema sería distinto. Pero no es ése nuestro caso (in Hordago, 1979: 1. lib., 268).

Eta ondokoa gaineratzen zen:

(...) no se trata de una inmigración polaca, sino ESPANOLA [sic] precisamente. Una inmigración insultante las más de las veces, que se enorgullece de despreciar nuestro idioma y nuestras costumbres.

15. ETAren hastapenetako idatzi bakan batzuetan, arraza euskal nazioaren elementuetako baten moduan hartzen zen: *Cuadernos de formación: Orígenes*, 1962 (in Jáuregui, 1981: 134).

16. *Liburu Zuria* izenbururik gabeko eta gaztelaniaz idatzitako liburu bat izan zen, zeinean hasierako ETA horren ideiak azaltzen ziren 150 orrialdetan zehar (Hordago, 1979: 1. lib., 148).

17. Atal horren laburpen egokia burutzen du Gurutz Jáureguik (1981: 101-104).

Es ése el problema de la inmigración en Euzkadi.

La situación es anormal, y la inmigración aumenta la eficacia de la situación anormal. La inmigración es un instrumento español AL SERVICIO DEL GENOCIDIO (*Ibidem*, 268-269).

Hasierako lehen urteetan, hortaz, ETA oraindik erakunde nahikoa txikia zenean, immigrazioarekiko jarrera uzkurra mantentzen zuen. Azpimarratzekoa da, zentzu horretan, ETA hasiberria zela, eta aurrerago garatuko zuen ildoa momentu horretan oraindik ez zela finkoa¹⁸. Hala ere, nahiz eta diskurtsoa hainbat puntutan immigranteekiko gogorra izan, Sabin Aranaren eta haren jarraitzaileen planteamenduekiko aldaketa handia zekarren. Finean, etorkinaren aurkako jarrera ez baitzen immigrantearen beraren ezaugarrien ondorio (neurri batean Aranaren kasuan gertatzen zen bezala), arazo politiko baten ondorio baizik. Hau da, ETAn aburuz, Euskal Herriko zapalketak immigrazioa *modu normalean* aztertzea galarratzen zuen. Horrela, espainiar immigrazioa nahikoa modu ezkorrean aztertzen bazen ere, ez zen etorkin ororen aurkako jarrerarik planteatzen. ETAk ez zituen immigranteak etsai gisa definitzen, baldintza batzuk ezartzen zituen arren:

Los inmigrantes tienen derechos: Y NOSOTROS TAMBIEN. No reconoceremos ningún derecho a cuantos inmigrantes SOLO respeten los de ellos.

O SE RECONOCEN Y SE APLICAN LOS DERECHOS DE TODOS, o no se reconoce ningún derecho a nadie. (...)

RECONOCEREMOS SUS DERECHOS SOLO A LOS INMIGRANTES QUE RECONOZCAN LOS NUESTROS. A los otros los consideramos como maketos al servicio del genocidio español, y los trataremos como agentes extranjeros (*Ibidem*, 269).

Etorkinekiko eta, oro har, immigrazioarekiko jarrera hori ETAk euskal nazioa ulertzeko zuen formarekin lotua zegoen. Aipatu dugun bezala, ETarentzat euskal nazioaren elementu eratzzailea ez zen arraza, hizkuntza baizik. Biak ezaugarri objektiboak dira, baina lehena kanpotarrari *itxia* den bitartean, hizkuntza ezaugarri *irekia* da, nahi duenak (zailtasunak handiak izan badaitezke ere) ikas baitezake. Era berean, ETAn, nazioa definitzeko garaian borondatearen aldeko hautuak gero eta ugariagoak izan ziren:

Euskaldunok arraza bat gera... Euskaldunok izkuntza berezi bat dugu... Euskaldunok libre izan gera istorian zear... Gaurko mendean, ez arrazak, ez izkuntzak, ez igaroak, ez diote erri bati ematen ez bere buruaren nagusitasuna ezta libre izateko eskubidea bera ere... Ondo dago erri bat gerala guk jakitea... Baiñan Euzkadi askatzeko besterik bearko dugu. Alegia, dagoen gauza bakarra: *Geronek nai izatea...* (Txillardegui, *Zutik*, 14, 8. or., in Jáuregui, 1981: 151).

Jáureguien (1981: 152-153) aburuz, hala ere, EAJtik eratorritako euskal nazionalismo historikoaren jarraipena da ETA, nazioaren ezaugarri objektiboak azpimarratzen dituen heinean. Aldaketa garrantzitsua dago, ordea, aipatu bezala, ordura arteko euskal nazionalismoaren idatzietan arraza zentralizat hartu edo,

18. Horren erakusgarri da *Liburu Zuri* horretan ETAk azaltzen duen marxismoaren aurkako jarrera: «El peligro del marxismo está en que presenta una visión completa, si bien falsa, de la vida» (in Hordago, 1979: 1. lib., 172). Jakina denez, aurrerago marxismoari buruzko jarrera aldatu zuen taldeak. Modu berean, momentu hartako immigrazioari buruzko diskurtsoak ere azkar aldatu ziren.

gutxienez, aipatzen zen bitartean, arraza ez baitzuen euskal nazioaren ezaugarri moduan hartzen ETAk, hasierako planteamenduetan ageri bazen ere. Haren orde, ETAk hizkuntza azpimarratu zuen, nahiz eta zailtasunak onartu: «Es difícilísimo en general decir en qué consiste el alma nacional (...) Creemos que el Euskera es factor esencial (...)» (in Hordago, 1979: 1. lib., 264).

Euskararen zentraltasuna 1960ko *Liburu Zurian* jada ageri zen aipu desberdinetan¹⁹ zein euskararen gaiari buruzko puntu berezi batean («Posición personal respecto al euskera»). Bertan, euskara euskal herritarren nazio-hizkuntzat hartzen zuen, eta *Euzkadi* bera bizi zedin beharrezkotzat jotzen zuen euskarak bizirik irautea: «El día que el euskera muera, Euzkadi habrá muerto y nuestra causa se habrá perdido» (in Hordago, 1979: 1. lib., 254).

1963an etorkinen afera aztertu zuen *Zutik* aldizkaria argitaratu zuen ETAk²⁰. Argitalpen horrek immigrazioaren aurrean ETAk bere posizio politikoa argitzea ekarri zuen, nahiz eta bertan ikuspegi desberdinen arteko kontraesan handiak agertzen ziren; baina, era berean, etorkinekiko ildo positibo eta arrazionalak planteatzea bilatzen zen (Garmendia, 1983: 74). Batzuek, immigrazioaren —abstraktuan planteatua— izaera desnazionalizatzailea azpimarratu zuten²¹, eta besteek, ondoko posizioak defendatu zituzten:

Nosotros le pedimos perdón por el uno y el otro [*maketo* eta *koreano* terminoez ari da], y le aseguramos a XX que tenemos una gran confianza en que todos nuestros compatriotas acabarán abandonando su empleo y rectificando los hábitos mentales que se esconden detrás de esas denominaciones (“Carta a un coreano”, *Zutik-3ª serie*, in Hordago, 1979: 2. lib., 350).

*Zutik 12*ko eztabaida horren atzean ondoko kontraesana dago: ETaren arrazismoaren eta bazterketaren aurkako posizio teorikoak, batetik, eta haren gizarteoinarriaren jarrera, bestetik, non orokortua baitzegoen, nonbait, Espainiatik iritsitako etorkinak modu ezkorrean ikustea (Garmendia, 1983: 74).

Garmendiaren aburuz, *Zutik 12*an immigrazioa dela-eta azaltzen ziren bi ikuspegien artean (etorkinak *beste talde arriskutsu* moduan tratatzea, batetik, edo askapen-borrokan integratzearen aldekoa, bestetik), bigarren ildo atera zen

19. *Liburu Zuriko* aipu desberdinen artean, ondokoa adierazgarria da: «(...) el euskera es pieza fundamental sin la cual nuestra nacionalidad no tiene posibilidades. (...) creemos que es factible un estado vasco sin euskera, pero en ese caso lo conseguido no pasaría de ser un Estado Norteño desprovisto del verdadero sentido vasco que todo abertzale debe buscar. (...)»

»El euskera es la quintaesencia de Euzkadi: mientras el euskera viva, vivirá Euzkadi» («Moral de resistencia nacional» in Hordago, 1979: 194).

20. *Zutik-3ª serie*, 12. zk., 5. or., Iruñea. Alta, Garmendiak (1983: 76) *Zutik-11*-z hitz egiten du.

21. «[los inmigrantes] van adquiriendo conciencia de su potencia demográfica y empieza a manifestarse el odio hacia el vasco. Es un hecho su odio a Euskadi.

»Indudablemente que España cuenta con esto, y en su día lanzaría esta fuerza contra nosotros. (...).

»A esta masa de inmigrantes no puede considerarse solamente bajo el simple aspecto de pobres gentes que vienen con todo derecho a ganarse la vida. Bien es verdad que son víctimas en España de la más inhumana injusticia social. Se mueren de hambre y emigran a buscar el pan. Conforme. Pero los efectos los sufre directamente un pueblo conquistado: Euskadi, y entonces esa inmigración se convierte automáticamente, de hecho, en una invasión» (“Aspectos de la inmigración”, *Zutik 11*, in Garmendia, 1983: 76).

garaile; hots, etorkinak abertzaletasunean integratzearen hautua gailendu zen, eta «será a partir de estas posiciones como evolucionará ETA en su práctica política» (Garmendia, 1983: 78). Ildo horretan, *Zutik 18*an, Espainiako Alderdi Komunista-ren aurkako idatzi batean, horrela adierazi zuen:

Hay en Euzkadi miles de obreros venidos de España; y sin embargo, afirmamos no ser racistas. Es sencillo: los habitantes actuales de Euzkadi son para nosotros los futuros ciudadanos vascos, sean o no étnicamente vascos; los obreros que trabajan en Euzkadi, son —sin discriminación alguna— la clase obrera vasca. No se trata de obtener un Estado Vasco en el que sus habitantes sean físicamente vascos (apellidos, etc.) sino de conseguir el Estado Vasco en el que todos sus ciudadanos siendo totalmente libres puedan ser totalmente vascos (...) Naturalmente que los de origen no vasco podrán optar por adoptar libremente la nacionalidad vasca o por conservar la suya propia (*Zutik 18*, in Garmendia, 1983: 269-270).

Denborarekin etorkinen integrazioaren aldeko jarrerak guztiz gailendu ziren ETAn zein, oro har, haren gertutik sortutako ezkerreko abertzaletasun berrian. Garai hartan eragin handia izan zuen eta ezkerreko euskal nazionalismoaren esparruan koka dezakegun *Vasconia* liburuan, horrela, immigrazioaren auzia zenbaitetan aipatu zuen Federiko Krutwigek. *Aranismoa* gaintu eta kultura (etnia eta hizkuntza azpimarratuz) goraiatzen dituen nazio-ikuspegi baten defentsa eginez, etorkinen integrazioaren aukera ireki zuen, hizkera oso gogorrez eta baldintzak ere jarriz²². Halaber, *Vasconian* euskal nazionalismoaren ordura arteko arraza-ikuspegiak ere kritikatzin ziren²³, beste pasarte batzuetan arraza kontzeptu gisa erabiltzen jarraitzen zen arren.

Jada aztertutako 1963ko *Zutik* horrek immigrazioa zuen hizpide, eta lan hori ETAn praktika politikoaren erakusle zen: immigranteen edonolako bazterkeria gaintu eta haien integrazioaren aldeko ildo garatu zuen erakundeak. 1964an, horrela, ETAn jarrera hori ageri da euskal intelektualei zuzendutako gutunean:

Nosotros hemos estado y estaremos siempre con los trabajadores que nacidos o no en Euskadi, trabajan por la implantación de una verdadera democracia en nuestro país. Ellos son la base de la futura sociedad vasca. A ellos y a sus hijos, consideramos, desde luego bastante más vascos que a esos capitalistas de largos apellidos euskaldunes, que se atreven a llamarse patriotas mientras no cesan de enriquecerse a costa de su propio pueblo (ETA: *Carta abierta de ETA a los intelectuales vascos*, 1964, in Bruni, 1988: 58).

22. «En cuanto a los obreros que vienen a trabajar con nosotros en nuestra tierra, bienvenidos sean, si vienen en son de amigos, si vienen a colaborar con nosotros a mejorar la suerte de cuantos viven en nuestra tierra, si traen la voluntad de convertirse en buenos ciudadanos de Euskaria, entonces ellos serán hermanos nuestros y sus hijos, a título perfecto, hijos de nuestra común patria Vasconia. Pero si vienen en son de conquistadores, si vienen como brazo del colonialismo y a extender su virus por nuestra patria, si sus designios son desnacionalizar a nuestra patria, entonces son nuestros enemigos, (...) son hijos de la misma madre que los capitalistas explotadores, de quienes ellos se quejan» (Sarrailh de Ihartza, 2006: 458).

23. «Aun hoy nos encontramos con nacionalistas (...) que discuten mucho de raza sin saber de qué hablan y que se creen muy vascos por poseer una larga serie de apellidos vascos (prueba inequívoca para ellos de su ascendencia racial) y que desprecian y se creen superiores a los hijos de emigrados, aunque éstos no sepan otra lengua que la vasca y por su mentalidad y sus sentimientos son auténticos hijos de Euskalherria» (Sarrailh de Ihartza, 2006: 305-306).

1967an immigrazioari buruzko diskurtsoan eragin handia izan zuen V. Batzarra egin zuen ETAk²⁴. Bertan, taldeak bere burua *mugimendu sozialistatzat* definitu zuen, eta immigrazioaren tratamenduarekin lotura handia izan zuen kontzeptua mahaigaineratu zen, marxismoaren eraginari loturik: *euskal langile herria* (Apalategi, 1985: 282; Letamendia, 1994: 311). Kontzeptu horrek, naziotasunari baino areago, subjektu iraultzaileari egiten zion erreferentzia; hots, helburu politikoen aldeko borrokaren subjektua zehazten zuen, nahiz eta garai hartan naziotasunaren eta atxikimendu politikoaren arteko lotura handia zen. Nolanahi ere, langile etorkinen papera guztiz argitzen ez bazen ere, horiei itxita ez zegoen kategoria zen: «Aquellos inmigrantes que se integren en Euskadi, se integren en el proceso de desalienación del Pueblo Vasco, forman parte de éste» (in Letamendia, 1994: 311). *Euskal langile herriaren* formularen, ETAn garai hartan eztabaidan zeuden bi ikuspegiak bat egin zuten, nazionalismoa azpimarratzen zutenak, batetik, eta marxismoa gailentzen zutenak, bestetik (Shafir, 1995: 113).

1970ean ere etorkinen integrazioaren aldeko aldarria modu argian egin zuen ETAk. Burgosko prozesuan auzipetutako euskal militanteek izenpetu zuten gutun batean, «Herrikoi Batasuna» izeneko zortzi puntuko programa kaleratu zen, eta agiriaren zortzigarren puntuan ondokoa aldarrikatzen zen:

8) Establecimiento de toda clase de recursos que puedan facilitar la plena integración de los inmigrantes en la realidad vasca. Garantías para los que no opten por la integración y deseen guardar su identidad nacional de origen sin ningún tipo de discriminación ni ilegalidad (*Zutik*, 63, in Apalategi, 2006: 198).

Puntu horretan, beraz, integrazioaz gain nazio-identitatearen ikuspegi zabala goa aldarrikatzen zen. Onarpen horrek immigrazioaren aurreko ikuspegiaren aldaketa adierazten du. Izan ere, ETAk eta, oro har, ezkerreko abertzaletasun berriak errotikako aldaketa ekarri zuen euskal nazionalismoaren eta etorkinen arteko harremanean. Shafirrek (1995: 112) dioten legez, «Dramatic change in the position taken by Basque nationalists toward Spanish immigrants came only with the appearance of ETA».

ETAn eta ezkerreko euskal alderdi zein talde abertzale zenbaitetan garaturiko immigratuekiko ikuspegi berriak euskal nazionalismo osora hedatu ziren. Hots, euskal herritar bilakatzeko arraza-eskakizunak azpimarratzen zituen ildo desagertzen joan zen, guztiz zehazturik egon ez arren²⁵; eta, oro har, etorkinekiko jarrera irekiagoa, eskusibismoa gainditzen zuena, garatzen joan zen. Ezkerreko abertzaletasunetik at, 1930etik arlo horretan pausoak ematen hasi zen Euzko Alderdi Jeltzalea bera, teoriaraino baino gehiago, praktikan. Arraza-eskakizunak gutxitzeaz bat, etorkinak ere mugimendu jeltzalera batzen joan ziren.

24. Zehazki, V. Batzarraren bigarren zatia da 1967an egin zena (xehetasunetarako, ik., adibidez, Letamendia, 1994: 305 eta hur.).

25. Zentzu horretan, egile batzuen aburuz, ETAk immigranteekiko zuen jarrera ezin da definitu edota garatutzat jo. Shafirren (1995: 114) ustez, «The major question, Are immigrants welcomed by the [ETA] movement or not? was left unanswered». Sullivan-ek (1988: 55, in Shafir, 1995: 114), halaber, definizio eza azpimarratuko du: «ETA was never to resolve the question of what attitude to take to the immigrants».

Gure iritziz, hala ere, eztabaida handiak izan baziren ere, eta oinarri sozial abertzalearen jarrerak alde batera utziz, euskal nazionalismo berriak naziotasuna zedarrizteko modu berria ekarri zuela azpimarratu behar da, berarekin immigranteekiko diskurtso eta praktika irekia garatu ahal izan baitzen.

Euskal nazionalismoan, nazioa eta naziokidea zehazteko garaian, arrazaren lekua euskarak bete zuen teorian, baina hizkuntzaren egoera ahula zela medio, praktikan euskarak paper sinbolikoa bete zuen (oso garrantzitsua izanik ere), eta aktibismo politikoa edo, maila orokorragoan, abertzaletasunaren aldeko jarrera izan zen euskal naziokidea definitzeko ezaugarri behinena (Conversi, 1997: 240; Zabalo, 2006). Zentzu horretan, integrazio-asmoak esplizitu egitera iritsi ziren: immigrantea euskal nazioan eta mugimendu abertzalean barneratzea desio eta helburu politiko bilakatu zen.

Euskal nazionalismoak nazioaz eginiko definizio berriarekin batera, eta haren ondorioz ziurrenik, Euskal Herritik at jaiotako hainbat herritarrek abertzaleen planteamenduekin bat egin zuten. Gainera, aldaketa hori 1960ko eta 1970eko hamarkaden testuinguruan kokatu behar da, orduan Europako Mendebaldean gertatutako mugimendu iraultzaileen loratzearekin, eta Afrika nahiz Asiako nazio-askapenerako mugimenduekin. Espainia mailan ere ezkerreko nazionalismoa indartu zen, marxismoari loturik, Galizian eta Herrialde Katalanetan batik bat (Rubiralta, 2000). Marko horretan jaiotako ezkerreko abertzaletasun berria Euskal Herrian, ETAren inguruan, eta hainbat eragile sortu zen ildo horretan. Espainiatik iritsitako migratzaileek mugimendu horrekin izandako harremanari dagokionez, nahiz eta autoktonoen parte-hartzea etorkinena baino handiagoa izan (Shafir, 1995: 114-115), euskal nazionalismoak bertan jaiotakoei mugaturiko mugimendua izateari utzi zion, modu argian. Horren adierazle, Juan Paredes Manot *Txiki* ETAko kidea izan zen, Extremaduran jaioa eta immigrante abertzaleen sinbolotzat hartu zena. Clark-ek errealtate hori aztertzeko, ETAko kideen deiturretara jo zuen, bestelako daturik ezean; eta haren kontaketa arabera, zuhurtziaz hartu behar dena, etakideen % 16,6k espainiar jatorriko deiturak zituen, eta % 40 inguruk abizenetako bat (Clark, 1984: 147).

Baina ETAz haratago, immigranteen eta euskal nazionalismoaren arteko hartu-eman sendoak garatu ziren, ezkerreko abertzaletasunari lotuta, batez ere. Conversiren (1997: 205) hitzetan, «(...) the high percentage of voting for the pro-independence coalition Herri Batasuna in areas where immigrants are a majority testifies to the immigrants' involvement in nationalist politics». Izan ere, immigratuek abertzaletasunarekin izandako lotura prozesu sakona izan zen. 1979ko Espainiako hauteskunde orokorrak adibidetzat hartuta, horrela, etorkinen parte-hartzea nabaria izan zen, ezkerreko abertzaletasun *independentistean* batez ere: % 75 ziren autoktonoak EAJri zein EERI bozka emandakoen artean; eta gutxiago, % 62, HB bozkatu zuten artean. Espainiar nazionalismoaren kasuan, aldiz, autoktonoak % 44 ziren UCDren kasuan, eta % 20 PSOEranean (Shafir, 1995: 115). Beraz, herritarraren jatorriak bozkatzerakoan eragina izan arren, immigrazioa ez zen euskal nazionalismotik guztiz urrundutako errealtatea izan; eta ikerketa batzuek boto-banaketan immigrante abertzaleen kopuru handia azpimarratzen dute (Garmendia *et al.*, 1982), nahiz eta beste batzuek hautesleriak zedarritzean jatorriaren eragina nabarmendu izan duten (Llera, 1984). Afera horretan Linz-ek (1986: 491) edota Ruiz Olabuénaga eta Blancok (1994: 214 eta hur.) sakondu dute, jatorriaren eragina azpimarratuz. Edonola ere, ezin da baieztatu ez ikuspegi sozialetik (Aierdi, 1993) ezta historikotik ere (Fusi, 1984: 253) jatorriaren araberrako haustura sozial sakonik gertatu zenik Hego Euskal

Herrian garai hartan; eta are gutxiago gaur egun halakorik dagoenik (Iraola *et al.*, 2011).

Nolanahi ere, euskal nazionalismoaren planteamendu politikoa behatuz, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan zehar aldaketa handia gertatu zen naziotasuna definitzerakoan. Hasieran etnia eta hizkuntzaren bidez, baina praktikan aktibismo politikoaren eta euskal nazionalismoarekiko atxikimenduaren bidez, abertzaletasunak espainiar immigrazioarekiko mugimendu uzkurra izateari utzi, eta bere lehen-tasunen artean immigranteak mugimendura erakartzea jarri zuen. Ikuspegi horretan garrantzitsua izan zen marxismoaren eragina (*euskal herri langilea* bezalako kategoriek erakusten duten moduan), baina euskal nazionalismo osoak bat egin zuen immigrazioarekiko diskurtso horrekin. Izan ere, mugimendu politikoa izaki, abertzaletasunak ezingo zukeen inolako arrakastarik erdietsi euren jatorriagatik Hego Euskal Herriko herritar askoren aurka egin izan balu.

4. Ondorio modura

Euskal nazionalismoak Espainiatik Hego Euskal Herrira iritsitako immigrazioarekiko ikuspegi gertatutako bilakaera handia izan da, nazionalismo horren sorreratik 1960ko eta 1970eko hamarkadetan gertatutako berritzera arte. Abertzaletasunak Euskal Herriaren nazio-izaera azpimarratzean, Espainia eta hari lotutako nazio-egitasmoarekin talka egiten zuen, Hego Euskal Herrian; eta, hortaz, Espainiatik lurralde horretara lan egitera iritsitako herritar berriekiko harremana problematikoa izan zitekeen, gertatu zen bezala. Izan ere, abertzaletzat Estatu beretik zetozen lagun horiek beste nazio batetik —edo batzuetatik— zetozen immigranteak ziren (eta hori ukatu egiten zuen Estatuaren nazionalismo *ofizialak*). Ikusi dugunez, immigrazioaz garatzen duen ildo oso adierazgarria da edozein nazionalismo aztertzeke, eta hori agerikoa da Estaturik gabeko nazionalismo honen kasuan.

Artikulu honetan gai konplexu hori berrikusten saiatu gara, eta, horretarako, arreta euskal nazionalismoak garatutako planteamendu teorikoan eta diskurtsoan jarri dugu. Laburbilduz, hiru aldi nagusi bereiz daitezke, gure ustez. Lehen momentu batean, euskal nazionalismoa Sabin Aranaren eskutik sortu zenean, espainiar immigrazioaren aurkako erreakzioa garatu zen. Euskal nazionalismoa Espainiatik Bizkaira iritsitako immigrazio-prozesu esanguratsu baten testuinguruan jaio zen; eta Aranaren testuak etorkinen aurkako jarreraren isla argia dira. Nazionalismo horren hastapenak izanik, aldarrikatutako nazioaren muga sozialak modu argian zehaztea zen mugimendu txikiaren lehentasuna. Horretarako *arraza* erabili zen, eta, *Bestetik* bereiziz, areriotzat hartzen zenaren aurka egin zen. Zentzu horretan, espainiarren aurkako jarrerak nagusi ziren euskal nazionalismoaren diskurtso eta planteamendu teorikoan. Horren ondorioz, Euskal Herriko gizartea talde itxi gisa definitu zen, ustezko oinordekotza partekatu batean oinarritzen zena, eta immigranteen integrazioa ezinezko bilakatu zen.

Korrante horretan aldaketak gertatzen joan ziren maila praktikoan, euskal nazionalismoa handitzearekin batera. Ikuspegi teorikoan, baina, 1950eko hamarkada arte nagusi izan zen naziotasunaren definizio *itxia*; praktikan XX. mendearen hasieratik —eta 1930eko hamarkadatik aurrera indar biziagoz—

immigranteen integrazioaren aldeko ahotsak ere izan ziren arren. Zentzu horretan, euskal nazionalismoan nagusi zen ikuspegi tradizionalista, kontserbadorea eta erlijiozalea gainditu nahi zuten jarrera liberal edo ezkertiarrek sortzen joan ziren.

Izan ere, euskal nazionalismoak immigrazioaz garatutako ikuspegian, bigarren aldi bat bereiz daiteke, non hasierako euskal nazionalismoarekin hautsi edo berau gainditu gabe, etorkinen aldeko lehen aldarriak egin zituen ildoak gorpuzten joan zen, gutxinaka. Sabin Aranaren jarraitzaileen artean, naziotasunaren ikuspegi *itxia* gainditzeko beharra azpimarratu zuten Jagi-Jagiko buruzagi batzuek, Manu Sotak batez ere. Naziotasunaren arraza-ikuspegia gainditu gabe, mugimendua immigrantei irekitzeko lehen urrats teorikotzat har daitezke jarrera horiek. Horrekin batera, euskal nazionalismo berri bat sortu nahi zuen ildoak dugu, batez ere Eusko Abertzale Ekintzaren inguruan. EAEk naziotasunaren ikuspegi berriaren zirriborroa egin zuen, eta nazioaren definizioan arraza maila sinbolikora mugatu zuen, etorkinak bere mugimendura espresuki deitzearekin batera. Baina saiakera horrek ez zuen nagusitasunik lortu. Oro har, euskal nazionalismoan aldaketa gertatzen hasi zen, baina 1936ko altxamenduak eta gerrak bilakaera hori eten zuten. Ludger Meesek (1992: 335) Eli Gallastegi eta haren kide batzuen idatziak aipatuz azpimarratzen duen bezala,

este era un primer paso para superar el radical «*anti-maketismo*» aranista, como ocurrió con la fundación de ANV en la Segunda República y definitivamente con la formación de la izquierda nacionalista durante el franquismo y el postfranquismo.

Behin gerra igarota, eta nahiz eta euskal nazionalismoa oso ahuldurik aurkitu (koadro militante gehienak erbestean, Hego Euskal Herriko antolakuntza ia eraitsirik, eta abar) immigrazioaren aurrean zerbait egitearen beharra hasieratik mahaigaineratu zen abertzaleen artean. Momentu hartan, euskal nazionalismotik immigrazioa lantzeko moduan hirugarren etapa bati hasiera eman zitzaion, immigrazio-prozesu sakona gertatzen ari zenean. Behin abertzaletasunak nazioa ulertzeko zuen ikuspegian arrazak pisua galduta, eta horren ordez (maila sinbolikoan bada ere) euskarak zentraltasuna hartutakoan, immigranteen integrazioaren aldeko jarrera nagusitzen joan zen. Ezkerreko abertzaletasunaren sorrerak, marxismoaren eragin handiaz eta planteamendu berriei bidea irekiz, etorkinen integrazioaren aldeko prozesu hori azkartu zuen. Conversiren (1997: 199) arabera, «the reaction to the second massive wave of immigration in the 1960s was to look for, and create, alternative values so as to include the immigrants in the nationalist struggle rather than reject them». Ezkerreko abertzaletasunak eta, batez ere, ETAK planteatutako euskal nazioaren ikuspegi teoriko berria, immigranteen integrazioa bilatzen zuena, euskal nazionalismo osora hedatu zen.

Ondorioz, euskal nazionalismoak naziotasunaren birdefinizio sakona burutu zuen XX. mendean zehar. Arraza ardatz zuen naziotasunaren definiziotik etnia —eta hizkuntza— azpimarratzen zuen ikuspegira pasa zen. Nazioaren definizio horrek, nagusiki hizkuntzan oinarritutakoa, guztiz eraldatu zuen euskal nazionalismoa: nazioaren definizio itxitik —teorikoki— irekiera pasa zen (*arrazaz* aldatzea ezinezkoa baita; ez, ordea, hizkuntza berri bat ikastea). Horrek aukera berriak ireki zizkion euskal nazionalismoari, baita etorkinei beraiei ere. Gainera, euskararen oinarritutako definizio hori praktikan aktibismoan oinarritutako nazio-

definizio batera igarotzen joan zen; eta, finean, borondatea bilakatu zen euskal herritar bilakatzeko faktore nagusi: euskal nazioko kide izan *nahi* izatea zen funtsezkoa. Horrek arazoak ere ekar zitzakeen, euskal herritarraren definizioa abertzaletasunari oso loturik zegoen heinean; baina aurrera begirako oinarriak ere finkatu zituen, eta etorkizuneko migrazio-fluxuekiko jarrera irekia garatzea ahalbidetu zuen.

Erreferentziak

- Aierdi, X. (1993): *La inmigración en el espacio social vasco: Tentativa de descodificación de un mundo social*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- , (2011): "Immigrazioa Euskal Herrian", in Gaindegia, *Gaindegia Txostena 2010*, Gaindegia, Andoain, 41-48, <http://www.gaindegia.org/files/GT2010_EU_1.pdf>.
- Anderson, B. (1993): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko Hiria.
- Apalategi, J. (1985): *Los vascos, de la autonomía a la independencia. Formación y desarrollo del concepto de la nación vasca*, Txertoa, Donostia.
- , (2006): *Los vascos, de la nación al estado*, Astero, Iruñea [1. argitalpena 1977an].
- Arana Goiri, S. (1980): *Obras completas*, Sendoa, Donostia [3 liburuki, 2. edizioa].
- Azurmendi, J. (1979): *Arana Goiri-ren pentsamentu politikoa*, Hordago, Donostia.
- Beltza [López Adán, E.] (1974): *El nacionalismo vasco (1876-1936)*, Mugalde, Hendaia.
- Billig, M. (1995): *Banal Nationalism*, Sage publications, Londres.
- Bourdieu, P. (2010): "Prefacio", in A. Sayad, *La doble ausencia. De las ilusiones del emigrado a los padecimientos del inmigrado*, Anthropos, Rubí (Bartzelona), 13-17.
- Bruni, L. (1988): *ETA, historia política de una lucha armada. 1ª parte*, Txalaparta, Tafalla.
- Clark, R. P. (1984): *The Basque Insurgents. ETA, 1952-1980*, University of Wisconsin Press, Madison.
- Connor, W. (1998): *Etnonacionalismo*, Trama, Madril.
- Conversi, D. (1997): *The Basques, the Catalans and Spain. Alternative Routes to Nationalist Mobilisation*, Hurst & Co., Londres.
- , (2012): "Modernism and nationalism", *Journal of Political Ideologies*, **17(1)**, 13-34.
- Corcuera, J. (2001): *La patria de los vascos. Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*, Taurus, Madril.
- De la Granja, J. L. (1995): *El nacionalismo vasco: un siglo de historia*, Tecnos, Madril.
- , (2008): *Nacionalismo y II República en el País Vasco. Estatutos de autonomía, partidos y elecciones. Historia de Acción Nacionalista Vasca: 1930-1986, Siglo XXI*, Madril [2. edizioa].
- De Miguel, A. (1974): "Estructura social e inmigración en el País Vasconavarro", *Papers. Revista de Sociología*, **3**, 249-273.
- De Pablo, S.; Mees, L., eta Rodríguez Ranz, J.A. (1999): *El péndulo patriótico. Historia del Partido Nacionalista Vasco*, Crítica, Bartzelona [1. liburukia].
- Díez Medrano, J. (1999): *Naciones divididas. Clase, política y nacionalismo en el País Vasco y Cataluña*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madril.
- Douglass, W. A. (2004): "Sabino's sin. Racism and the founding of Basque nationalism", in D. Conversi (ed.), *Ethnonationalism in the contemporary world. Walker Connor and the study of nationalism*, Routledge, Londres, 95-112.

- Elorza, A. (1978): *Ideologías del nacionalismo vasco 1876-1937 (de los "euskaros" a Jagi Jagi)*, L. Haranburu, Donostia.
- Fusi, J. P. (1979): *El problema vasco en la II República*, Turner, Madrid.
- , (1984): *El País Vasco. Pluralismo y nacionalidad*, Alianza, Madrid.
- Gallastegi Gudari, Eli (1993): *Por la libertad vasca*, Txalaparta, Tafalla.
- García-Sanz Marcotegui, A. eta Mikelarena Peña, F. (2000): "Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, **16**, 125-138.
- Garmendia, J. M. (1983): *Historia de ETA*, Haranburu-Altuna, Donostia [1. liburukia].
- Garmendia, J. A.; Parra Luna, F. eta Pérez-Agote, A. (1982): *Abertzales y vascos. Identificación vasquista y nacionalista en el País Vasco*, Akal, Madrid.
- Gellner, E. (2008): *Naciones y nacionalismo*, Alianza, Madrid [2. edizioa].
- Gil Araújo, S. (2006): *Las argucias de la integración. Construcción nacional y gobierno de lo social a través de las políticas de integración de inmigrantes. Los casos de Cataluña y Madrid*, Doktore Tesia, Universidad Complutense de Madrid.
- Heiberg, M. (1989): *The Making of Basque Nation*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Hordago, Equipo de (1979): *Documentos Y*, Lur, Donostia [18 liburuki].
- Huici, V. (1981): "Ideología y política en Arturo Campión", *Príncipe de Viana*, **163**, 641-687.
- Iraola, I. (2013): *Euskal nazionalismoaren diskurtsoa gaur egungo immigrazioaren aurrean*, Doktore Tesia, UPV/EHU, <<http://hdl.handle.net/10810/12457>>.
- Iraola, I.; Mateos, T. eta Zabalo, J. (2011): "Discursos sobre la integración: la inmigración al País Vasco entre 1950 y 1970", *RIPS Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas*, **10(3)**, 115-130.
- Jáuregui Bereciartu, G. (1981): *Ideología y estrategia política de ETA*, Siglo XXI, Madrid.
- Larronde, J. C. (1977): *El nacionalismo vasco, su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Txertoa, Donostia.
- Letamendia, F. [Ortiz] (1994): *Historia del nacionalismo vasco y ETA. ETA en el franquismo (1951-1976)*, R&B ediciones, Donostia [1. liburukia].
- Linz, J. J. et al. (1986): *Conflicto en Euskadi*, Espasa-Calpe, Madrid.
- Llera, F. J. (1984): "El sistema de partidos vascos: distancia ideológica y legitimación política", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, **28**, 171-207.
- López Sala, A. M. (2005): *Inmigrantes y Estados: la respuesta política a la cuestión migratoria*, Anthropos, Rubí (Bartzelona).
- Mees, L. (1989): "La izquierda imposible. El fracaso del nacionalismo republicano vasco entre 1910 y 1913", *Historia contemporánea*, **2**, 249-266.
- , (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1903-1923)*, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo.
- Rubiralta, F. (2000): "Nazionalismo erradikal berria (1959-1974): Galizia, Katalunia eta Euskadiko kasuen ikerketa konparatzailea", *Uztaro*, **32**, 103-116.
- Ruiz Olabuénaga, J. I. eta Blanco, C. (1994): *La inmigración vasca. Análisis trigeracional de 150 años de inmigración*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Sarrailh de Ihartza, F. [Krutwig, F.] (2006): *Vasconia*, Astero, Iruñea [1. argitalpena 1963an].
- Shafir, G. (1995): *Immigrants and Nationalists. Ethnic Conflict and Accommodation in Catalonia, the Basque Country, Latvia, and Estonia*, State University of New York Press, Albany.
- Solozábal, J. J. (1979): *El primer nacionalismo vasco. Industrialismo y conciencia nacional*, L. Haranburu, Donostia.
- Sullivan, J. (1988): *ETA and Basque Nationalism: the fight for Euskadi 1890-1986*, Routledge, Londres.
- Triandafyllidou, A. (1998): "National identity and the 'other'", *Ethnic and Racial Studies*, **21(4)**, 593-612.

- Triandafyllidou, A. (2001): *Immigrants and National Identity in Europe*, Routledge, Londres.
- Zabalo, J. (1998): "Euskal nazionalismo motak —nazioaren ikuskeraren arabera—", *Uztaro*, **26**, 27-46.
- , (2006): "Nacionalismo vasco: el discurso teórico sobre la nación y su readecuación en la práctica", *RIPS. Revista de Investigaciones Políticas y Sociológicas*, **5(1)**, 83-94.
- Zabalo, J.; Mateos, T. eta Iraola, I. (2013): "«Conflicting nationalist traditions and immigration. The Basque case from 1950 to 1980»", *Nations and Nationalism*, **19(3)**, 513-531.
- Zabaltza, X. (2005): *Mater Vasconia. Lenguas, fueros y discursos nacionales en los países vascos*, Hiria, Donostia.
- , (2006): *Una historia de las lenguas y los nacionalismos*, Gedisa, Bartzelona.

